



Arra >

**ESPEZIE  
BABESTUA**  
HARRAPATZEA  
EDO HILTZEA  
DEBEKATUA DA

# ETXE- TXOLARREA

## *Passer domesticus*

### TAMAINA

15 zm

### ITXURA


Etxe-txolarrearen itxura desberdina da sexuaren arabera.

Arrak apaindurarik gabeko lumak ditu, baina aski koloretsuak. Emeak, berriz, luma diskretuagoak ditu.

Saltoka mugitzen den espezie sendoa eta lotsagabea da.

< Emea

## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

> Urte osoan zehar

### NON?

> Ingurune ezberdin askotan  
(hetsiegiak ez direnak)

Bere kantua entzun >



Landa-txolarrearekin nahas daiteke.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

13 urte

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Nagusiki haziak jaten ditu.

Etxe-txolarrea gizakiarengandik oso hurbila den txori sedentarioa eta taldekoa da. Kolonia zatatsuetan bizi da.

Habia egiten dutenak arrak dira. Emeak xarmatzen saiatzeko, haien habiaren aitzinean erakustaldia egiten dute. Sortutako bikoteak, 2 eta 8 arraultza bitarteko hiru umealdi egiten ditu denboraldian.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

80. hamarkadaz geroztik, Etxe-txolarre populazioak gutxitzen ari dira hiri handietan. Hiriko habitata gero eta betoiztatuagoa izateak ez dio janari aski ematen normalki jateko. Baserrialdean ere, laborantza jardueretan izandako aldaketen ondorioz, gutxitze hau nabari da. Gainbehera hori izan arren, etxe-txolarrea txori arrunta eta arras hedatua da.

Askotan laborariek gutxi preziatzen dute hazi asko kontsumitzen duelako, alabaina, txolarrea baliagarria da. Izan ere, belar haziak kontsumitzen ditu ere bai, eta bere xitoak elikatzeko intsektu asko ehizatzen baititu.